

Castrillo Ortuoste Argazki Funtsa



Identifikazio-eremua

Erreferentzia-kodea: ES20600AME_COF
Izenburua: Castrillo Ortuoste Argazki Fondoa
Datak: 1899/1995
Deskripzio maila: 01 - Funtsa
Bolumena: Formatu eta euskarri ezberdinetako 200.000 negatibo (azpimarratzekoa da beirazko 10.000 plaken serie bat); 694 argazki paperean; estudiorako eta kanporako argazki-kamerak; plaka-handigailua (13x18 cm-raino) eta laborategitik eta argazki-estudiotik heldutako beste material batzuk.

Testuinguruaren eremua.

Ekoizlearen izena.

Castrillo Ortuoste familia.

Iruzkin biografikoa

Castrillo Ortuostetaren argazkilari-leinu honen aurreneko belaunaldia Roman Ortuoste eibartarrarekin hasi zen. Isidro Felipe Ortuoste eta Demetria Echaluceren semea; 1864ko azaroaren 18an jaio eta 1941ean zendu zen. Juana Cengotita Garitagoitiarekin ezkondu zen 1889. urtean eta bost seme-alaba izan zituzten: Mercedes 1895ean jaioa, Victoria 1899an, Faustino 1901ean, Luciano 1908an eta Gregorio, gazteena, 1910ean. Hasiera batean, Romanen lanbidea grabatugintza izan zen, sasoi hartako beste hainbat eibartarrena bezala; behar horretan jardun zuen harik eta 1901ean Aldatze jauregirako bidean zegoen Indianokoa baserriaren ostean, "La Independencia" argazki-estudioa zabaldu zuen arte. Romanek bere ogibide berria aurrera ateratzeko beharrezkoak zituen ezaguera teknikoak non jaso zituen jakitea zaila da. Edonola ere, agirietan garbi jasota geratu dena da grabadore lana ez zuela albo batera laga, izan ere, argazkilaritza, European XIX. mendearen



erdi aldetik ezaguna bazen ere, ez baitzen lanbide ikasterraza eta soldata ziurrekoa. Horregatik ez da agertzen bere argazkilari altarik matrikula industrialean 1913ra arte. Ez zuen bakarrik estudioan jardun mendearen hasierako eibartarren erretratuak ateratzen; horrez gain, oso pertsona gutxiren oroimenean baino geratzen ez den orduko Eibar hura ere ederto asko jaso zuen: Indianokua jauregia, Untzaga plazako kiosko zaharra, Barrenkale, Amaña aldeko ortuak baporezko tren zahar batek zeharkatzen... Hiru seme izanda ere, alaba bietatik nagusiena, Victoria izan zen aitaren ofizioari eutsi eta leinuaren kateari segitu ziona. Feliciano Castrillo, 1898ko abuztuan jaio zen eta Bilboko *Zalduan* eta *Foto Espigan* ikusi zuen ofizioa; azken horretan ezagutu zuen Victoria, bera baitzen aitaren erretokiak hiriburura eramateko eta beharrezkoak ziren argazki-materialak erosteko ardura zuena. *Foto Espiga*, Lorenzo Espigak 1900. urte inguruan fundatu zuen, hainbat argazkilariren ikasleku izan zen eta Castrillo familiaren hornitzaile izaten segitu zuen berrogeita hamargarren hamarnakora arte. Irakurtzea zuen zaletasun Felicianok, politika kontuan ezkertiarra zen, sozialista, Eibarren jarri zuen estudioa, Barrenkale kalearen 11n. Victoria Ortustek eta Feliciano Castrillok hiru seme izan zituzten: Lucas, 1918an jaiotakoa, Juan 1922an eta Feliciano, 1936an. Ematen zuen Lucas izan behar zela aitaren ofizioaren jarraitzailea: dibujante aparta eta argazkilaritzarako joera zuen, eta 16 urterekin bere aitaren estudioan ziharduen ikasten. Baina zoritxarreko gertaera batek goitik behera apurtu zuen familiaren bizimodua: gerrateak. 1937ko apirilaren 27ko bonbardaketarekin, Castrillo-Ortuostetarren estudioa eta etxea birrinduta geratu ziren, eta familia sakabanatuta. Victoriak, bere semea hartu eta Bilbora jo zuen, handik Santanderrera, itsasontzia hartu eta Frantziara, eta azkenik, Pirinioak Port-Boutik zeharkatuta, Bartzelonara. Aitak, Feliciano Castrillok, 1937an Bergarara jo zuen eta han jardun zuen argazkilaritzan 1938. urtea arte; handik Debara joan zen eta estudio txiki bat ipini zuen gerra amaitu arte. Itzulera ez zen erraza izan. Gerra amaituta, gerra galduta, Felicianok bere bizimodua Eibarren aurrera atera nahi izan zuen baina politika kontuan zituen aurrekariak –ez dezagun ahaztu bere militantzia politikoa- ez zioten biderik zabaltzen, eta horregatik senideengana eta lagunengana jo behar izan zuen buelta gozoago bat bilatzearen; Lucio Unanue Gáratasko asko lagundu zion horretan. Lucio Unanuek, 1940ko apirilean, Bidebarrieta kaleko 62. etxearen beheko solairuan argazkiak ateratzeko estudio bat zabaltzeko eta errotulu bat jartzeko eskaera egin zuen udalean. Urte batzuetan, Felicianok egin beharrean bere adiskide Unanue izango zen agiri guztiak haren izenean bideratuko zituen, baina ez hori bakarrik: 1939tik 1941era bitartean Unanue bera izan zen kontribuzioaren ordainketa guztien kargu hartu zuena Bidebarrietako argazkilari hura bera izango balitz bezala. 1942an, erregimenaren hasierako purgen ondoren, Feliciano Castrillo berriro hasi zen azaltzen estudioaren titular gisa. Baina bizitzan ez zuen zorte handirik izan eta estudioa lehen zuenaren kale bereko 21. etxean jarri eta handik lau hilabetera, 1946ko otsailaren 15ean, hil egin zen. Victoria, aitaren ofizioa ume-umetatik bizi izandakoa, Felicianorekin ezkondu ondoren laborategiaren eta estudioaren kargu egin zen. Luciano bere anaiarekin hasi zen lanean eta segida eman zion familiaren betiko lanari. Bera dugu Eibarrek izan duen lehen emakume argazki profesionala. Emakume saiatua eta alaia, gorde izan dira bere buruari atera zizkion erretratu batzuk eta egin zuen argazki-muntaiaren bat edo beste. 1949an, Ortuoste anaia-arrebek estudioa Generalísimo kalean egindako etxe berrietan jartzea pentsatu zuten –gaur egun, Julian Etxeberria 11- bonbardaketak baino lehen Román eta Felicianorenak egon ziren lekutik hurrean. Lan handiko urteak izan ziren haiek. Eibarrek, 1945ean 13.823 biztanle zituen, baina urte bakar batean, 1946an, %24aren igoera izan zuen, tailerren behargin eskariak eta etxegintzarenak demaseko jende olatua ekarri baitzuten. Diru aldetik ere jendea hobeto zebilenez, asteburuetan jendea estudioa joaten zen bere “ongizate” hura agerian uzteko eta beraien jaioterrietako familiari argazkiak bidaltzeko. Baina berriro ere destino zorizaletakoak bisita egin zion familiari eta 1945. urtean, neba-arreba biak, Victoria eta Luciano, hil egin ziren. Feliciano Castrillok inorako joan-etorri geragabeen bizi izan zuen bere haurtzarora. Gerra ondoren, Eibarrera etorri zen 1945ean eta Lucas Alberdirekin hasi zen marrazten ikasten udal eskoan; handik urte batzuetara Marcanorekin landu zuen laminako marrazki artistikoa. 1949tik 1952era



bitartean batxilergoa amaitu eta Madrileran joan zen Arte eta Ofizio eskolara, han osatu zuen marrazkilatzaren alorrean eskuratu zuen prestakuntza. 1952an bertan itzuli zen Madrildik eta Luciano bere osabari laguntzen hasi zen erreportajeetan. Hala ere, argazkilaritzaren munduarekin zerikusia zuten gauza guztiak umetatik ezagutzen zituen, gertutik ezagutu bere, eta gaztetatik hasi zen zapatu arratsaldeetan laborategian sartu eta kopiak errebelatzen, bere lagunekin egiten zituen txangoetan argazkiak egiten. 1954an, amaren eta osabaren ustekabeko heriotzak hartara derrigortuta, estudioaren kargu hartu zuen. Jose Huidobro hartu zuen ofizial gisa, eta hark lagunduko dio 1981ean erretiroa hartu zuen arte; 1958an, handik urte batzuetara bere emazte izango zen Maria Paz López Apellaniz hasi zen berarekin lanean. Felicianok berrogei urtez jardun zuen bere lanbidean, urte horietan Eibar handitzen ikusi zuen, sasoi berrira egokitzearen bertako industriak norabide aldaketa handiak egin zituen industria ezagutu zuen; etorkin andana bere magalean hartu eta ia 40.000 biztanle edukitzera heldu zen herria. Argazkilaria begiradak fideltasun osoarekin gorde du orduko aberastasun hura: Industrietarako katalogoetako argazkiak, esportazio eta inportazioetarako agiriak argazkiak, fabrikak eta tailerrak handitzen zeudela ateratakoak, "errefreskoak", ezkontzak, jaunartzeak, herriko koadrillak... beste garai baterako Eibar batera garamatzaten irudiak. Baina berrogei urte horietan krisialdiak ere izan ziren eta egoera berrietara moldatzen joan behar izan zuen Feliciano Castrillok. 1978. urtetik aurrera estudioko argazkigintzak beherakada izan zuen eta 1994ko abenduan estudioaren ateak betiko itxi arte, argazkilaritza publizitatearen munduarekin lotutako beste zeregin batzuetara dedikatu zen. Argazkilaritzaren leinu horren azken belaunaldia da Felicianorena; Eibarko herriaren iraganaren pasarteak berreskuratzeko orduan lekuko kutunak ditugun begiradak, izan ere, denboran urrun geratu arren, iragana datorkigu gainera, kezka sortzen digu paisaiak eta gizakiak ematen dizkigunean: gure herri-oroimenean sustraituta daudenaren seinale.

Artxiboaren historia

Roman Ortuostetarren lehenengo estudioa, dokumentuen arabera, Maria Angela kaleko 1-3an zegoen. Gero, Feliciano Castrillo bilbotarrak -Roman Ortuosteren alaba Victoriarekin ezkondua- estudio berri bat ireki zuen Barrenkalean, 1937ko gerratean bonbardatu egin zuten zutenez, Roman aitaren artxiboko material asko eta asko galdu ziren. Gerratean, Felicianok handik hona egin zuen lan, Bergaran edo Deban esate baterako; Deban, hondartzatik gertu, estudio txiki bat jarri zuen. 1949an hil zen eta Ortuoste anaia-arrebek estudioa Generalisimo kalean egindako etxe berrietan jartzea pentsatu zuten -gaur egun, Julian Etxeberria 11. Feliciano Castrillo Ortuostek han segitu zuen, negatiboen artxiboa bere estudio-laborategiaren gela batean antolatu zuen, plakak eta argazki-paperak gordetzeko kaxetan batuta. Tamaina ertaineko negatiboak eta paso unibertsalekoak bilduta zeuden, berak errezikatzen zituen paperez batuta (fakturak, egutegiak, orri komertzialak). Hirurogeiko hamarraldian eta hirurogeita hamargarrenekoan egindako industria-argazkiak izenburuz eta dataz zeuden antolatuta neurri askotako kartazaletan. Artxibo horretan ura sartu zenez dokumentazioaren zati batek kalte fisikoak eta biologikoak pairatu zituen. 1997ko abuztuan artxibo hura eta laborategiko material guztiak Eibarko udal Artxibora eraman zituen eta aurreneko inbentarioa egin zen; kalte gehien zuten negatiboak gainerakoetatik bereiztu egin ziren artxibo osoak kalterik izan ez zezan.

Sarrerari buruzko datuak

Feliciano Castrillo Ortuostek 1997-8-8an egindako dohaintza; kaxak eta material guztiak bere estudiotik Eibarko udal artxibora eraman ziren. 1999-9-27ko udalbatzaren bilkuran egin zen artxiboaren onarpena eta eskerrona.



Edukiaren irismena eta egitura

Garrantzia eta edukia

Azpimarratzekoak dira 36ko gerra aurretik egindako kopiak, estudioko familia-argazkiez gain postal sorta koloretutako bat dago; baita Eibarko bizimoduari buruzko erreportajeak, tiro-txapelketa baten parte hartzen ari diren emakumeak eta ekitaldi politikoak (Primo de Riveraren bisita, II. Errepublikaren aldarrikapena, Alcala Zamoraren bisita). Industria-argazki asko daude: arma-tailerretako instalazioak, beharginak, josteko makinak, bordatuak, bizikletak, ziklomotorrak, makinaria, erremintak eta piezak, horiek denak katalogoak eta eskuliburuak argitaratzeko egindakoak. Argazkilaritza komertzialaren alorrean milaka dira dauden negatiboak, ia denak erretokiekin: karnetetarako argazkiak, familia-liburuetarakoak... Baita estudioan nahiz kanpoan egindako argazkiak ere, taldeenak, bataioetakoak, jaunartzeenak, hiletetakoak, despedidenak eta ezkontzetakoak. Kirol proben erreportaiak eta bista panoramikoenak ere badaude.

Balioespenak, hautaketak eta aldaratzeak/deuseztapenak???

Funtsaren inbentarioa eta deskribapena egiterakoan ez da irudi bat bera ere bota. Estudiotik eta laboratoriotik ekarritako material guztiak Udal Argazkilaritza Tailerrera eraman ziren han erabiltzeko.

Eskuratzekoak

EZ

Antolamendua.

Castrillo Ortuosteren jatorrizko kaxak udal artxibora heldi zurenean artxiboko kaxetan gorde ziren hobeto zaintzeko; 1998ko apirilean egindako aurreneko inbentarioan erregistro-zenbakia eman zitzaion kaxa bakoitzari. Aurreneko digitu biak artxiboko kaxari dagozkionak dira, hurrengo biak Castrilloren jatorrizko kaxarenak, eta azken biak, plaka-zenbakiari edo erreportai-zenbakiari dagozkionak.

Beirazko plaketako batzuk garbitu, folio artean gorde eta artxiboko beste kaxa batzuetan sartu dira, lehengo numerazio berberarekin. Egile-kopien serieak, gaika antolatuta, zorroetan banan bana sartuta daude. Gaur egun jatorrizko negatiboetatik abiatuta egin diren kopiak eta kontaktuak karpitetan daude ikusgai eta kontsultagai.

Erabilera eta sarbidea: Baldintzak.

Eskuratzeko baldintzak

Izaera publikoko artxibo-funtsa. Sarbide librea, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/90 legearen muga edo murrizketekin. Negatiboen kontsulta mugatuta dago.

Erreproduzitzeko baldintzak

Erreproduzio librea, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/90 legearen muga edo murrizketekin.

Ezaugarri fisikoak eta betekizun teknikoak

Egoera fisiko orokorra hala-holakoa/ona da. Funts honen barruan apurtutako plakak ere badaude, emultsioa galdu dutenak edo ondoek erasotakoak.





Deskribapenerako baliabideak

Lehenengo inbentarioa 1998an egin zen; ekoizleak emandako izenburuak eta datak jasotzen ditu.

Bildumaren katalogoa, 700 egile-kopiakoa eta beirazko plaken artean egindako aukeraketa batena.

Lotutako dokumentazioaren eremua

Jatorrizko dokumentuen existentzia eta kokalekua.

Eibarko Udal Artxiboa.

Kopiei buruzko informazioa

Ez

Lotutako deskribapen-unitateak

Indalecio Ojanguren Arrillaga Argazki Funtza
Heraclio Echeverria argazki funtza

5.4. Argitalpenei buruzko oharra

. - Artículos sobre el estudio fotográfico y el fondo Castrillo Ortuoste: "Argazkixak eta historia".

...eta kitto! 254 zk. 19-9-1997; "Fotografía Castrillo. El fin de tres generacione al cuidado de la

imagen de Eibar". KEZKA. Eibarko Klub Deportiboko aldizkaria". Anuario 1995.

. - Publicaciones que incluyen fotografías del fondo: LARRAÑAGA, RAMIRO Y ALUSTIZA, NEREA: "El Grabado en Eibar". Ego Ibarra. Eibarko Udala.1996; "Eibarko Klub Deportiboa 1924-1999". CLUB DEPORTIVO EIBAR, 1999; Además la revista "Eibar" en colaboración con el Archivo Municipal edita mensualmente fotografías del fondo para su identificación.

.- Eibar Aldizkaria.

.- Eibar argipean: Castrillo Ortuoste Fondoa / Cien años de fotografía. EIBARKO UDALA, 2002.

.- CABRERA PÉREZ, Luís Alberto Mujer, trabajo y sociedad (1839-1983). Fundación Largo Caballero. Madrid; 2005

Deskribapen Kontrola

Artxibozainaren oharra

Yolanda Ruiz Urbón artxibariak egindako deskripzioa udal dokumentazioa iturritzat hartuta

Arauk

ISAD(G): Deskribapen artxibistikorako nazioarteko arau orokorra, 2000

Deskribapen-data

2008-04-07

